

2026-02-06 / 887 ZENBAKIA / 22. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Andoaingo Inauteriak:
Puska-biltzearen
bidez jaiak gertu
ditugula iragarri
zuten axeriek / 8

Urnietako Inauteriak:
Mozorrotzeko
proposamen bikoitza
luzatu dute herriko
eragileek / 6

**2026rako 30 milioi
euroko aurrekontua
onartu zuen
Andoaingo udal
batzarra**ldiak / 4-5



Joxe Belauntzaran Kortadi: mende beteko oroitzapenak

Urnietako Xoxoka-Goiburu auzoan jaio eta, egun, Andoainen bizi da / 10-11

AIURRI

**EUSKAL
ESKOLA
PUBLIKOA**





**Kalitatezko
Hezkuntza**



euskadi.eus/hezkuntza

AURREMATRIKULA **Otsailaren 2tik 13ra**

AIURRI.EUS | 2026/02/03



Otsailaren 3an egin zen bilera Bastero Kulturguneko auditorioan. AIURRI

Zabalgunea- Amenabar auzia

Justizia administrazioaren sententzia irmoa da eta auziak Andoaingo ehunka herrikideri eragiten dio. Batez beste, eremu hartako jabego bakoitzari 300 eta 600 euro arteko dirua erreklamatzeko zaio. Egoeraz informatzeko Udalak bilera-ireki deitu zuen asteartean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urtea hastearekin batera, Zumea plaza, Txitibar plaza eta inguruetako jabeei eragiten dien afera bolo-bolo dabil herritarren artean. Auziak hainbeste jenderi eragiten diola ikusita, Andoaingo Udalak bilera antolatu zuen urtarrilean. Eta orduko hartatik bi konpromiso hartu zituen alkateak: arreta zerbitzua eskaintzea eta bigarren bilera-irekia egitea.

Konpromiso horiek asteotan betetzen joan dira: dozenaka izan dira udaletxera informazio eta argibide eske hurbildu direnak eta, bestalde, atzokoan egin zen bilera. Interes handia zegoen, partaidetzari eta iraupenari erreparatuta. 200 lagunetik gora hurbildu zen audito-

riora eta bilerak ia hiru orduko iraupena izan zuen.

Aurkezpenean, Andoni Alvarez alkateak sententziarekiko eta ondorengo prozedurarekiko desadostasuna agertu zuen. Baina sententzia irmoa dela eta Udalak epaiaren notifikazioak helaraztera behartu dutela erantsi zuen.

Alkatearen idazkari Nuño Santillanak hartu zuen protagonismo handiena oholza gainera. Hark egin zuen gertaeren azalpena: 1995-1999 agintalditik honako kronologia eta auziari loturiko hainbat datu esanguratsu eman zituen. Segidan, informazio-prozesuan sortu diren galdera ohikoenak zeintzu diren xehetu zituen eta, azkenik, herritarrei eman zieten hitza.

Tarte hori iritsita, oholza gainera, galderak erantzuteko hiru lagun batu zitzaizkion Nuño Santillanari: Andoni Alvarez Andoaingo alkatea, Unai Rekondo udal idazkaria eta Leire Lertxundi abokatua.

Galde-erreguen tarte

Ia hiru orduz luzatu zen bilera eta, galderen artean, honako hauek: ordaindu beharreko interesekiko desadostasuna, garaje jakin batzurengeatik ordaindu beharreko kopuru desproporzionatua, urte hauetan guztietan egon den informazio falta... Giroan agerikoa zen sententziarekiko desadostasuna eta isuna ordaindu beharrak eragiten duen haserre. Gehien-gehienentzat espero gabeko

karga ekonomikoa baita, batez beste, 300 eta 600 euro artekoa.

Egunotan ezagutzera eman den Donostiako Epaitegiaren sententzia irmoa da: Zumea plaza eta inguruak eraikitzeke sortu zen Kopentsazio-Batzordeak Amenabarrek erreklamaturakoari erantzuna ematen ez zio-
la ikusita, epaileak hondasun-
higieezinei egotzi die 222.333,40 euroak ordaintzeko obligazioa. Hots, garaje, etxebizitza eta lokalak egungo jabeei. Erantzuleak, ondorioz, ehunka pertsona dira.

Informazioa ematen jarraituko du Udalak

Justizia administrazioak jakinarazpena banan bana helarazteko ezintasunaren aurrean, Andoaingo Udalak behartu du lan hori egitera. Zer esanik ez dago ordu asko eman duela Udalak jakinarazpenak bidaltzen eta arreta zerbitzua ematen. Atzoko bilera eta gero, herritarrei informazioa ematen jarraituko duela adierazi du udal erakundeak. Ikusteke dago kaltetutako herrikideen artean mugimendu antolatuturik sortuko ote den.

**GEHIENENTZAT
ESPERO GABEKO
KARGA DA, BATEZ
BESTE, 300-600 EURO
ARTEKOA**



Tailerra Arraten egin zuten. BERTXIN

Ongizate emozionala jorratzeko tailerra

Andoaingo Udalak, Leizaran Institutuak eta Bertxin eta Santa Cruz elkarteek parte hartu dute

Xabier Lasa ANDOAIN

Leizaran Institutuko "Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikaria" zikloko bigarren mailako irakasleek eta ikasleek gidatu zuten aurreko asteko tailerra.

Honako helburu hauek ditu tailerrak:

- Andoaingo herritarren "zahartze aktiboa" sustatzea.
- Jarduera osasungarriak eta ohitura berriak eskuratzea bultzatzea.
- Gaitasun kognitibo eta motorrak lantzea.
- Ongizate biopsikosoziala (integrala) sustatzea: gorputza, emozioak eta harremanak.
- Belaunaldien arteko harremanak eta elkarrengandik ikastea sustatzea.
- Harremanak erraztuz eta sustatuz, isolamendua saihestea.

Saio polita eta hunkigarria izan zen parte-hartzaile askorentzat, antolatzaileen esanetan. Ez ziren gutxi izan hurrengo urteko denboraldian tailer horietan berriro murgiltzeko nahia adierazi zuten partaideak.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



KOMUNITATEA

BURUNTZALDEKO ETXEBIZITZA SINDIKATUA BETERRI-BURUNTZA

Buruntzaldeko Etxebizitza Sindikatuak Andoaingo probokazio arrazista salatzen du

Buruntzaldeko Etxebizitza Sindikatuak gogor salatzen du Andoainen jazotako probokazio arrazista eta xenofobia; arabieraz idatzitako sindikatuaren hainbat kartelen gainean txerri-hestebetea agertu da itsatsita. Ekintza inozo eta isolatua izatetik urrun, herriko komunitate arabiar eta musulmanaren aurkako eraso sinbolikoa da, sindikatuaren eta tokiko langile-klasearen zati garrantzitsua denaren aurkakoa.

Azken gertakari honi, hilabeteotan Andoainen agerturiko pintada arrazistak edota Urnietako, Hernani eta

Asteasun agerturiko pankarta eta pintadak ere gehitu behar zaizkie. Eraso berri hau, beraz, azkenaldian ikusten ari garen adierazpen arrazisten gorakadaren testuinguruan kokatzen da. Horri guztiari gizartearen zati batean ematen ari den diskurtso arrazista eta erreakzionarioen hazkundera gehitu behar zaio.

Pertsona migratzaileak beren jatorrizko herrialdeetatik politika inperialisten ondorioz kanporatu, eta, aldi berean, helmugako herrialdeetan esplotatu, estigmatizatu, diskriminatu eta pobrezia bultzatzen dituen sistema kapitalista seinalatzea

dagokigu halaber. Etxebizitzaren esparrua horren adibide argia da: higiezin-agentzien eta etxejabeen filtro arrazistek, bazterketa sistematikoak eta askotariko iruzur eta gehiegikeriek migratzaileak miseriazko bizitoki, eta oro har, bizi-baldintzetara, kondenatzen dituzte.

Guzti honen aurrean Buruntzaldeko Etxebizitza Sindikatuak langileon klase-batasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako jardunean jarraituko du. Era berean, azken urteotan egin bezala, etxebizitza arloan aholkularitza eman, akonpainamendua egin,

kaleratzeak geratu eta orotariko lan sindikal militantean jarraituko dugu.

Euskal Herrian eta Europan ikus daitekeen oldarraldi erreakzionario eta arrazistaren aurrean, inoiz baino premiazkoagoa da antolatzea eta gorroto diskurtsoen aurrean euste-horma sendo bat altxatzea. Eman beharreko erantzun kolektibo horren adibide argia da Gazte Koordinadora Sozialistak joan den larunbatean deitutako manifestazio antifaxista.

Dei egiten diogu eragile eta norbanako orori arrazakeria kasu ororen aurrean antolatu eta borrokatzera.

Palestinako genozidioaren aurkako protestaldia

Andoaingo BDZ taldeko kideek antolatu zuten Illarramendi industrigunean

Erredakzioa ANDOAIN

“Mercadona, ez izan genozidioaren konplize” pankarta eskuetan, aurreko asteburuan elkarretaratzea egin zuten Mercadona saltokiaren aurrean. “Israelgo datilek odola daukate” leloa aldarrikatu zuten, batik bat, Israeletik datozen datilak gogoan hartuta: “Izan ere, israeldarrek abian jarritako Palestinako lurraldeen okupazio historikoaren baitan, Jordan ibaiaren eta bailararen inguruko lur aberatsak ere bere egin izan dituzte; bertan, fruitu jangarri energetiko hori ematen duten datil-palmondoak topa daitezke”. Hala, gogora ekarri zuten “kolono israel-darrek palmondoak landatzen dituzte okupatutako lurralde horietan, eta datilen esportaziotik datozkien diru-sarrerak horiei esker bizitzen jarraitzen dute bertan, eta azken batean, erregimen koloniala sustatzen jarraitzen dute”.

Andoaingo BDZ mugimenduak salatu duenez: “Israel, Palestinako lurrak okupatuz negozioa egiteaz gain, palestinarrak elikadura-sistema oztokatzen die, lurra lantzea eta elikadura-subiranotasuna ukatuz”.

NANa eta Pasaportea egiteko aukera berria, Urnietan

Polizia Nazionalaren bulego mugikorra Urnietako plazara hurbilduko da otsailaren 11n

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak adierazi duenez, otsailaren 11n, NAN eta Pasaportea egiteko edota berritzeko aukera izango da herrian bertan. Ordutegia honako hau izango da: 08:30etik 14:25era.

Eskudirutan soilik ordaindu ahal izango da zerbitzua. NANari dagokionez, 12 euro; pasaportearen kasuan, 30. Interesatuek aurretik hitzordua hartu beharko dute Urnietako Udaleko Bertan bulegoan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Andoni Alvarez Lete Andoaingo alkatea, aurreko osteguneko plenoan. UDALA/YOUTUBE

30 milioi euroko aurrekontua

Urteko pleno garrantzitsuenetarikoa da aurrekontua eztabaidatzen denekoa, horren baitan antolatzen baitira hainbat sailetan bideratu beharreko partida ugari. Horien artean etorkizuneko hainbat

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urteko lehen udal batzarraldian etzabaidarako eta onespenerako aztergaia eraman zuen udal gobernu taldeak. Aurreko ostegunean egin zen eta, aurreikusitazitekeen moduan, aurrekontua gehiengo osoz onartu zen. EH Bilduren zortzi botoak eta Elkarrekin Podemosen bakar nahikoa dira gehiengo osoa bermatzeko eta halaxe izan da oraingoan. Deigarria egin zen sozialisten eta jeltzaleen botoa, aurreko urteekin alderatuta aldaketa esanguratsua eman baita: PSE-EE abstenitu egin zen eta, EAJ-PNV, aldiz, aurka agertu zen.

Andoni Alvarez Lete EH Bilduko alkateak Gobernu taldearen proposamena aurkeztu zuen eta, oro har, ildo nagusiekin bat agertu zen Podemoseko Pepe Iparragirre zinegotzia.

30 milioi euroko aurrekontua xehetu zuen Andoni Alvarez alkateak. Sailez sail hainbat gako aurreratu zituen: Lebiton eta Burdina taldeen urteurrena hizpide izanik, haiei loturiko partida bereziak aurkeztu zituen. Kultur arloan ere, laster martxan jarriko den Agenda bateratua iragarri zuen. Kiroldegia egitasmo berria martxan jarriko da eta partida gehiago nabarmendu zituen: Ludoteka, zerbitzu berrien pabilioia...

Behin gobernu taldearen proposamena ezagututa, sozialistek eta jeltzaleek bi txandatan azaldu zuten euren posizioa. Lehenik, onarpenerako aurkeztutako emendakinak azaldu eta defendatu zituzten. Ondoren, aurrekontuen eta negoziazioen iritziz politikoa eman zuten.

Oposizioko alderdien botoan eman zen aldaketa. Sozialisten

kasuan, euren proposamenak aintzat hartzen zirela ikusita (kalistenia, segurtasun-kamerak eta dolu peritanaleari eskainitako gunea), eta nahiz eta agintaldi osoan kritiko agertu, abstentzioaren alde jo zuten bozketan. Lehen aldia da, aurreko urteetan aurkako botoa eman baitute Aritz Alkainek eta bere alderdikideek.

Jeltzaleen kasuan ere aldaketa eman da. Euren hainbat emendakin onartu baziren ere, inbertsio estrategikoetan hitza ez betetzea leporatu zion Imanol Goenagak gobernu taldeari. Eta, azkenik, landa eremuko bideak eraberritzeko partida ez handitzea kontra bozkatzeko nahikoa arrazoi izan ziren jeltzaleentzat.

Ordu eta erdi baino gehiago iraun zuen plenoan, oposizioko alderdien botoaren zentzua ez zen azken unerarte argitu.

Oposizioko posizionamendua



Aritz Alkain, alderdi sozialistaren bozeramailea. UDALA/YOUTUBE

PSE-EE | Abstentzioa "Aurka bozkatzeko arrazoi ugari ditugu baina, eratzukizunez, eta berezki gure udal taldeak aurkeztutako proposamenei traba ez jartzeagatik abstentzioaren aldeko botoa emango dugu".



Imanol Goenaga, jeltzaleen bozeramailea. UDALA/YOUTUBE

EAJ-PNV | Aurka "Bozka aldatuko dugu eta guretzat gazia, triste da erabakia. Landa eremuko partida historikoki defendatu dugun partida da. Aurkako botoa emango dugu. Zorrotz egi behar dugu eta paperean idatzitakoa bete behar dela uste dugu".



Pepe Iparragirre, Elkarrekin Podemoseko bozeramailea. UDALA/YOUTUBE

Elkarrekin Podemos | Alde "Eskerrak eman nahi dizkiot EH Bilduri aurrekontuen tramitazioan egin ditugun proposamen guztiak jaso dituztelako. Horrenbestez, egindako lana aitortzea dagokigu".

Aurrekontuko nabarmenena

KULTURA
Lebiton konpartsaren eta Burdina taldearen urteurrenak direnez, partida bereziak sortu dituzte.

KIROLA
Kiroldegia eraberritzeari ekingo diote, 2025ean eskuratu zuten maileguaren bidez. Eta ohiko konponketak egiteko beste 100.000 euro gorde dituzte. Era berean, kiroldegiko langileen hitzarmena berritu eta langileen lan baldintzak “nabarmen” hobetuko dituztela iragarri zuen alkateak plenoan.

ENPLEGUA
Ludotekaren eraikin berriaren azken egokitzapenak egingo dituzte.

ZERBITZUAK
Zerbitzuetako pabiloi berriaren egitasmoari hasiera emango diote, behin eskatutako mailegua eskuratu ondoren. Hainbat Udal eraikinetan eguzki plakak jarriko dituzte energiaren auto hornidura bultzatzeko.

HIRIGINTZA
Etxebizitza plana abian jarriko dute, auziari modu integralean erantzun asmoz. Horrez

gain, Udal eraikinen artean, Urigaingoa da irisgarria ez den bakarra. Zeregin horretara 300.000 euroko partida bideratuko dute.

BERDINTASUNA
Jabekuntza eskolarako diru-partida handitu dute eta indarkeria matxistaren prebentziorako 20.000 euroko partida gehigarria bideratu dute. Zaintza planerako, bestalde, 15.000 euro gehiago bideratu dituzte.

GIZARTE ZERBITZUAK
Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua eta Eguneke Zentroa indartzeko 295.000 euro gehiago bideratuko dituzte. Arreta zerbitzua indartzea erabaki dute, “persona erdigunean jarriko duen arreta eredurantz urrats gehiago” eman asmoz.

EUSKARA
Etorri berriak diren haur eta nerabeei euskarazko errefortzurako klaseak emateko partida berria osatu dute.

KREDITU GLOBALA
“Legeak horrela ahalbideratuta, 906.000 euroko diru-partida sortu dugu, zeina inbertsioetarako erabili nahi dugun.



Maiza zinemaren sarbidea, Kale Berrian. AIURRI

2025eko likidazioa jakiterakoan, gerakinaren eta erabilgarria den zenbatekoa jakingo dugu eta, ondoren, zehaztuko dugu zein inbertsioetara

bideratuko den. Inbertsiorako Udal Gobernuaren lehentasuna, etorkizuneko udal liburutegia bilakatuko den Maiza zinemaren erosketa izango da”.

Andoaingo EAJ-PNVk prentsaurrekoa deitu zuen, plenoaren ostean

Astelehen goizean, kazetariak Batzokira deitu zituen Andoaingo EAJ-PNVk aurrekontuen harira izandako posizioa azaldu asmoz. Hedabideen aurrean Imanol Goenaga eta Txitxu Ruiz zinegotziak agertu ziren. Ordurako, plenoan ikusi zen EH Bilduk PSE-EEren hainbat emendakin onartu zituela. Besteak beste, udalerrian segurtasun-kamerak jartzea. EAJ-PNVk lotura zuzena ikusi du partida hori onartzearen eta landa-bideetarako beste bat murriztearen artean. Azken hori, alderdi abertzaleen arteko adostasun bat zela diote jeltzaleek. Eta horren aurrean desadostasuna agertu zuen Goenaga jeltzaleen bozeramaileak: “hartutako konpromisoei bizkar ematea” dela iritzi dio eta, horrexegatik, 2026ko udal aurrekontu proposamena onartzeari uko egin diote.

Hala, Batzokiko agerraldian, balorazio politiko kritikoa egin zuten azken udalbatzan gertatutakoaren inguruan; “izan ere, gure ustez, 2024 eta 2025 ekitaldietarako adostutako aurrekontu-akordioak ez dira bete. Ez gaude desadostasun politiko soil baten aurrean, hartutako konpromisoen haustura baten aurrean baizik; erantzukizunez,

elkarrizketaz eta lankidetzarako borondatez, Andoaingo interes orokorra soilik kontuan hartuta, lortu genituen konpromisoak ziren.

Gobernu-taldearekin lortutako akordioak ez ziren obligazio matematiko baten ondorio izan, baizik eta udalerriarentzat benetako lehentasunak negoziatu eta adosteko erabaki politiko kontziente baten emaitza”. Horrexegatik, PNVren arabera, azken osoko bilkuran gertatutakoa “inflexio-puntua” izan da.

Jeltzaleen ustez, EH Bildu beste kide batzuri begira ari da lanean: “EH Bilduk sozio politiko berrien bila egitea erabaki du, zehazki Alderdi Sozialistaren bila, aurrez EAJ-PNVrekin hartutako konpromisoak haustea ekarri badezake ere. Erabaki horrek, gainera, funtsezko partidatan murrizketak ekarri ditu, hala nola landa-bideen hobekuntza eta mantentzera bideratutakoetan. Eta hori ez da erabaki neutroa; baserriei, mugikortasunari eta lehen sektoreari zuzenean eragiten dien erabaki politikoak da. Gogorarazi behar baitugu bazegoela bide horiek asfaltatu eta mantentzeko urte anitzeko plan bat garatzeko akordio esplizitua”.



Imanol Goenaga eta Txitxu Ruiz, Andoaingo EAJ-PNVko kideak. AIURRI

2026ko Udal aurrekontuari dagokionez, EAJ-PNVk sei zuzenketa aurkeztu zituen, guztira 1,36 milioi euroko balioarekin; besteak beste, “aparkaleku gune berriak sortzea, liburutegi berriari bultzada ematera, Bertxingo zentralera, Leizaurreko espazio publikoaren hobekuntzara, eguzki-panelen ezarpena edo Ondarretan irisgarritasuna hobetzera bideratuta”. Horietatik lau baino ez dira onartu,

zuzendutako zenbateko osoaren %17,3 besterik ez.

“Akordioak ez dira tramite hutsak, konpromisoak dira. Gobernatzea ez da soilik zer egiten den erabakitzea, baizik eta nola eta norekin egiten den erabakitzea. Eta, zoritxarrez, EH Bilduk elkarrekin eraiki genuen ibilbide-orritik urruntzea erabaki du”, esanez amaitu zuen agerraldia Goenagak.



Idea bila, Urnietako inauterien atarian

Egun gutxi barru, Urnietako kaleak mozorroz eta musikaz beteko dira. Badira mozorroa eta koreografia lantzen asteak daramaten taldeak, baina ez dira gutxi izango prestaketa-lanak azken unerarte utzi dituztenak

Erredakzioa URNIETA

Telebista saioak: Urnietako Sor-ginak izan ziren, urtearen hasieran, aurtengo gaia lau haizetara zabalzen lehenak. Eta data gerturatzen ari da –otsailaren 14a–, Urnietako dozenaka lagunak jaiarekin bat egiten duten egun seinalatua. Badira mozorroa eta koreografia lantzen dabiltzan taldeak baina ez dira gutxi prestaketa-lanak azken unerarte utziko dituztenak. Telebista saio ezagunak ez dira gutxi, belau-naldiz belaualdi, badira hainbat herriarren gogoan iltzaturik geratu direnak. Ikusi behar zein lantzen dituzten hainbatek.



El Conquistador: Endika Garcia eta lagunak, Urnietan, 2012ko inauterietan. AIURRI



Caiga quien Caiga: Mozorro lehiaketa antolatu zuen Poxta Zaharrek, 2012an. Epaimahaikideak TV programako aurkezleen pare mozorrotu ziren. AIURRI



The Simpsons: Belaunaldi batentzat baino gehiagorentzat ezagunak dira. @PAULASTLB

Baserria, Poxta Zaharren ideia



Barazkiak buruan, Altsasuko inauterietan. DANTZAN

Barazkia, mozorroaren osagaia Altsasuko mozorrorik ezagunena momoxorroa da, inauteri asteartez. Tartean, burua barazkiz estaltzen dutenak, batzuk txikoria, beste batzuk aza...



Mozorro begetalak, Kanpezun. DANTZAN

Landare-mozorroa Belar, garo, sastraka edo hostoz osatuta agertu ohi dira Euskal Herriko hainbat mozorro. Trapu zaharrak, zakuak... eta baita landareak ere erabiltzen dira mozorrotzeko.



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbifia Ugartemendia.

idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea:

Fer Irazu.

publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak:

Rocio Arias (Andoain).

Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.

Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Urnietako
udala

Andoaingo Kaldereroen etena, 39. urteurrenean

1987ko otsailaren 21ean, gaueko 22:30ak zirenean, Kaldereroen konpartsa Andoaingo udaletxera iritsi zen. Estraineko ekimena izan zen, duela ia berrogei urte. Ekitaldi berean kaldereroek Maria Luisa Irizar lasterkaria omendu zuten



1987ko Kaldereroen ospakizuna, lehena, Andoaingen. Irudian herrikide taldea ageri da Goikoplazan. ANDOAINGO UDAL ARTXIBOA

Erredakzioa ANDOAIN

Afalostean egiten zen ospakizuna hasierako gara haietan. Denborarekin ospakizuna eraldatuz joan zen eta, gerora, arratsalde-tik ekiten zioten kalejirari. Jaiak, ordea, beheranzko joera bizi izan du azken urteotan eta, azkene-

rako, etenaldia iritsi da. Antolatzailleek nahiz Andoaingo Udalak etorkizun hurbilean jaia berriro berreskuratzeko itxaropenari eutsi diote. Akaso 2027koa goizegi izango da, baina data sinbolikoa da: 40 urte beteko dira 1987ko otsailean lehen aldiz egin

zenetik. Udal Artxiboko agiritegiari erreparatuta, lehen edizio hura prestatzeko gogo berezia jarri zuten. 1986ko abenduaren 2an hasita, asteartero eta ostegunero egiten zituzten entseguak. Indar handiz abiatu zen, orduko hartan, kaldereroen ospakizuna.

Beheranzko joera bizi zuen jaiak



Kaldereroen kanpalekua, ia hogeitazko urte atzera eginda. AIURRI

2007 Kaldereroen konpartsa abiatu eta hogeitazko urtera, partaidetza handia biltzen duen ospakizunak. Are gehiago, ikuslegoaren artean ere arreta handiagoa antzematen zen urte haietan. Denbora luzez une gozoa bizi izan zuen kaldereroen ospakizunak.



Kaldereroen konpartsa, 2023an. AIURRI

2023 Azken urteotan partaidetza nabarmen jaitsi zen nahiz eta txalotzekoa zen Gora Kale Txiki txarangak eta guraso talde batek egindako ahalegina. Lehen urteekin alderatuta, beheranzko joera agerikoa zen.



Ondarreta Herri Eskola, 2024ko irteeran. AIURRI

Herri Eskolak eutsiko dio jaiari Ostiral honetan, Ondarreta Herri Eskolako ikasleak kalera irtengo dira Kalderero bezperako kalejirari eusteko. 2026an, jaiari dagokionez, horixe izango da Andoaingen egingo den ekitaldi bakarra.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa





Axeri-taldea, Tere Lopez de Munain, Maddi Jauregi, Miren Iztueta, Maritxu Zipitria eta Pello Iztuetarekin, Aterpe bordan. AIURRI



Axeriak auzotarrekin Antzizar etxearen aurrealdean, eguerdi aldera. AIURRI



Trentxikitik barrena aritu ziren axeriak, besteak beste. AIURRI

Inauterien iragarleak

Euria, hotza, haizea... eguraldi petrala izanik ere, axeriek puska-biltzea egin ahal izan zuten Leizotz aldean. Inguru haietako hainbat etxe eta baserrietatik igaro ziren eta denetan harrera beroa jaso zuten. Puska Biltzea inauteri giroko lehen ospakizuna da

Xabier Lasa ANDOAIN

Irunberri elkartearen jarri zuten hitzordua eta, gosalduta osten, oinez ekin zioten ibilbideari. Eguraldi txarrak ez zituen kildu eta Puska-biltzea bere osotasunean egin zuten. Goizean hasi eta eguerdira bitarte, Leizotz aldeko hainbat etxe eta baserrietan izan ziren. Tartean, besteak beste, Mizpiradi, Ameztia eta Antzizar. Landa eremuko lau auzuneetan egin ohi denez, Sorabilla, Buruntza eta Goiburu aldean ariko dira hurrengo urteetan. Andoaingo axeriek 2013an berreskuratu zuten puska Biltzea eta, geroztik, aipatu lau auzuneetan txandaka egiten dute.



Axeriak dantzan, Itzal Haundi etxearen kanpoaldean. AIURRI



Harrera beroa jaso zuten axeriek Leizotz aldeko etxe eta baserrietan. AIURRI

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



**Andoaingo
Puska-biltzea**

Mozorro egunetako giroa antzematen hasi gara

Familiak, talde handiak, kuadrillak... gutxi-asko, inauteria lantzen ari dira herrikideak. Urteko festa parte-hartzaileena da, ehunka eta ehunka andoaindar mozorroa jantzi eta kalera irteten direnekoa. Aurtengo egitaraua xehetu dugu, egunez egun

Erredakzioa ANDOAIN

Azter dezagun inauteria, egunez eguneko egitarauari jarraiki.

Otsailak 12, ostegun gizena

Ikastetxeak inauteri festan murgiltzen diren eguna da. Bazkalostean, aspaldiko ohiturari jarraituz, kalejiran abiatuko dira guztiak Goikoplazarantz.

Arratsaldean, DJ Mikeltzik saioa egingo du ospakizunetarako egokituko duten olanapean. Donostiarra da eta, iaz, Eukararen Nazioarteko egunean, saio bikaina egin zuen.

Otsailak 13, ostiral mehea

Lebiton konpartsaren urteko lehen irteera izango da. Gazteentzat, aldiz, bingo berezia antolatu dute Gazte Lokalean. Iluntzean, erromeri giroko doinuez beteko da karpa Malkogarriyak taldearen erreperorioa rekin.

Otsailak 14, larunbata

Andoaingo inauterietako egun handia da. Jendetza murgiltzen da festan eta, egitarauaren gainetik, andoaindarrak dira benetako protagonistak.

Eguna ordu txikiak arte luzatuko da Goikoplazan DJ Nemuxen saioarekin.

Otsailak 15, igandea

Inauterietan jarraitzeko gonbita luzatuta dago. Nekeak jota ez dagoenarentzat edo Tolosara ez joatea erabaki duenarentzat, Andoainen hiru hitzordu nabarmendu daitezke: konpartsen irteera, bazkaria Goikoplazan eta Sardinaren segizioa eta ehorzketak.

Andoainen dagoeneko antzematen da inauteri-giroa.



Euskararen egunean saio bikaina egin zuen DJ Mikeltzik. AIURRI



Ostiral iluntzean zuzenean ariko dira Malkogarriyak taldekoak. AIURRI

2026: Andoaingo Inauterien egitaraua

OSTIRALA, OTSAILAK 6

15:00 Ondarreta Herri Eskolako Kalderero txikien kalejira, Gora Kale Txikik lagunduta.

LARUNBATA, OTSAILAK 7

16:00 Inauterietako maskaren lantegia Ludotekan.

OSTEGUNA, OTSAILAK 12 OSTEGUN GIZENA

15:00 Hiru ikastetxeetako ikasleen kalejira, txarangekin batera.
17:00 Karaokea Ludotekan.
17:00 Txokolate-jatea Bertxin elkartean.

18:00 DJ Mikeltzi, Goikoplazan.

18:30 Olagain Txistulari taldearen kalejira.

19:00 Udal Musika Eskolako ikasle helduen emanaldia.

OSTIRALA, OTSAILAK 13 OSTIRAL MEHEA

17:00 Lebiton Buruhandi eta Erraldioen Konpartsa.

17:30 Inauterietako Bingo Berezia Gazte Lokalean.

20:00 Malkogarriyak, Goikoplazan.

LARUNBATA, OTSAILAK 14

11:00 Mozorroak eta konpartsak.

13:30 Bertxin elkarteko bazkaria Oianumen.

Irteera, San Martin eliza atzealdetik autobusetan.

17:00 Inauteri desfilearen hasiera, Gora Kale Txiki txarangarekin batera. Ibilbidea: Txitibar Plazatik Goikoplazara. Ondoren konpartsak, herrian barrena, 22:30ak arte.

22:30-02:30. DJ Nemux Goikoplazan.

IGANDEA, OTSAILAK 15

09:00-20:00 'Super blood bowl' 2026 txapelketa eta mozorro lehiaketa, Enderen Jokoa Elkartean.

12:00 Mozorroak eta Konpartsak, kalez kale.

14:00 Bazkaria, Goikoplazan. Bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Lekua eta txartelak aldez aurretik hartu beharko dira Bastero Kulturgunean.

19:30 Sardinaren segizioa, Goikoplazatik abiatuta.

20:30 Sardinaren ehorzketa, Goikoplazan.



Inauterietan, igandean, bazkaria egingo dute Goikoplazan. AIURRI

Inauteriak

Atal berezia **Aiurri.eus** gunean

Agenda, argazki-bildumak, bideoak

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI
KIDE**



Joxe Belauntzaran Kortadi, Jon Ezeiza (suia), Idoia Gorroño (biloba) eta Modesto Belauntzaraneekin (semea). Erreportaje osoa Aiurrren web orrian irakurgai. AIURRI

Ehun urtetik gorako bizialdia

Joxe Belauntzaran Kortadik ehun urte bete zituen iazko abenduan. Bizipen ugariko gizona da Xoxoka-Goiburu auzoan, Ormazarreta baserrian sustraiak dituen gizasemeak, eta horietako zenbait kontatu dizkio Aiurriri

Xabier Lasa ANDOAIN

Joxe Belauntzaran Kortadi Xoxoka-Goiburuko Ormazarreta baserrian jaio zen, 1925eko abenduaren 26an. Simon Belauntzaran Garaialde eta Joxepa Kortadi Arruti zituen gurasoak, eta Joxepa, Modesto eta Rita anai-arrebak. Egun, Andoaingo Galdardi kalean bizi da, eta mende bete zuela eta bisita egiteko asmoz bertaratu zitzaizkion Andoni Alvarez alkateak eta Haizea Barandiaran zinegotziak udalaren izenean, joan den astean.

Joxe Belauntzaraneke emaztea ere Urnietakoa zuen, Lategi auzoan kokatzen den Goikoetxe baserriko alaba, Maria Ikutza Arin, hain zuzen. “Gure inguruko neska gazteak beste auzo edo herrietara alde egiten zuten, eta mutil zahar asko geratzen zen gurean. Nik ere ondoko auzora jo behar izan nuen, hortaz”, dio Joxek umorez. Bost seme-alaba eduki zituzten: Mertxe, Kontxi, Modesto, Pili eta Joxe Mari. 2006an alargundu zen Joxe.

Xoxokako eskolako lehen ikasleetakoa

Xoxokan 1925ean ireki zuten eskolako lehen ikasleetakoa izan zen Joxe. Hain zuzen, bere irekieratik mende bat igaro zela eta joan den uztailaren egin ziren ospakizunetara hurbildu ziren ikasle ohi guztien artean bera izan zen zaharrena.

Angela Arrue Intxauspe izan zuen maistra. “Euskaraz egiten zigun dena. Behin, idatzi bat gaztelaniaz irakurri zigun, eta ondoren, ea zer entenditu genuen galdetu zigun. Batzuek gauza bat, besteek bestea..., erantzun guk. Bada, “*alerik ez dezue ezer entenditu*.” esan zigun maistrak. Esku ona eta burua ere halakoa nuela esaten zidan, baina ez zidan sinpatia handirik, ez dakit zergatik. Gerra etorri zenean, agintariekin kastigatu egin zuten nazionalista zelako, eta nahi zuten ordezkioa jarri zuten”.

Garai hartan haur gehien-gehientsuenen antzera, Joxe Belauntzaraneke ere urte gutxi

egin zituen eskolan, nahiz bizilekutik 800 metro eskasera eduki; oinarritzko ikasketak baino ez zituen jaso ahal izan. Nekazaritza bizi zen familia, eta bertako lanetan iaioitu zen, derri gorrean.

Gazte-gazte hasi zen soldatapeko lanetan, Gudari Etorbidetan kokatzen zen Magnesitas Navarras lantegian hain zuzen. Gerora, Laborden aritu zen eta bertan hartu zuen lan-erretiroa.

1936ko gerran, tiroen artean

Belauntzaraneke hamar urte zituela ezagutu zuen 1936ko uztailaren 18az geroztik frankistek sortu zuten gatatzka. Ezagutu ez ezik, sufritu ere gertu-gertutik egin zuten Ormazarretako familiak. Ez alferrik, baserri hori eta alboko Larburu, biak ere paraje pribilegiatuan daude kokatuta, panorama ezin bikainagoan noranahi begira herriz gero (Urniet-Hernani aldera, kostaldera, mendialdera...), eta detaile horrekin ederki asko

erreparatu zuten Errepublika defendatzen zuten abertzale eta ezkertiarrek nahiz haren kontra jo zuten kolpe zale militarrek. Era horretan, kanpamendu modukoak ezarri izan zituzten baserri inguruetan batzuk zein besteek, 1936ko abuztu-irailean Buruntzaldean eman ziren baitailan barrena.

Borroka aurrera joan ahala, frankistek Buruntza mendia abuztuaren 31n hartu zutenean, errepublikazaleek Santa Barbara gotorlekuan eta Onddi mendi-inguruetan jarri zituzten defentsa-lerroak, eta orduan gogortu ziren borrokaldiak Xoxoka-Goiburu aldean, eta Ormazarretan batik bat, bertan posizioan baitziren frankistak. “Kanoikaden jaurtigai ugari ibili ziren alde batera eta bestera gure etxe aldean, eta ondoko zanga batean ezkutatzen ginen halakoetan”.

Belauntzaran familiaren gainetik airean pasa ziren jaurtigai horietako batek aparteko zer esana eman zien eskolaren ingurura iritsi zenak. “Enbutegi aldetik etorri zen, eta Maingua-nea baserriaren eta eskolaren artean egoten zen gaztainondo baten ipurdia jo zuen; eskerrak hari, ze lurra jo eta harrotu izan balu, desgrazia gehiago eragingo zituen. Hori bai, zenbait soldadu zauritu zituen, eta 30 bat mando akabatu. Mandoak lurperatu behar izan zituzten gerora, gure aita-eta”.

Trantze larririk hartu gabe igaro zuten gerra-bolada hura belauntzatarrek, baina Joxek bereziki gogoan hartu nahi izan ditu Sabordegi baserriko bi ahizpak, “haien baserrian bete-betean jo zuen kanoikada batekin hil zen Anttoni Peñagarikano; Angela ahizpak, berriz, begia galdu zuen metrailarekin”.

Soldaduska, mandoekin

1936ko abuztu-irailean tiro eta kanoi-hotzen artean ibili izanari esker, gero soldaduskan ez zitzaion arraro egin hango parafernalia militar guztia: “Etxetik gertu, Irun, Orio eta Loiolan egin nuen soldaduska. Garraiorako erabiltzen zituzten mandoen artean ibili nintzen, haien bizkar kanoiak, munizioak, metrailetak... zamatze-lanetan”. Mandoen ostikoetatik urrun ibiliz gero, burohauste handirik gabeko militarrez inguratutako bizialdia izan zuen hura”.

Urnietan ekintzaile, kultur eta gizarte arloetan

Xoxoka-Goiburu auzoan errotutako mutila izanik, agudo eta berez ikasi zuen zenbatekoa den premiazkoa auzolana ongizate komunitarioaren mesedetan. Auzoko jaiak antolatu eta bertan xextra kutsuko kirol-ikuskizunetan protagonista izatea egokitu zitzaion, kuadrillen arteko apustuen eskutik batik bat. Trontzalaria izan zen, batik bat ikuskizun haietan. Ikusita dago egungo Xoxoka-Goiburu auzo-jaiekin erreparatuta, gauzak ez direla hainbeste aldatu. Belaunaldien arteko transmisioa dotore egin izanaren seinale.

Soldaduka atzean utzi eta hurrengo urtetan, auzoan ez ezik Urnietako gizarte eta kultur dinamiketan ere biziki parte hartu zuen horietakoa izan zen Joxe Belauntzaran. Inñistorra Urnietako Euskaltzaleen Biltzarra eta Larramendi Bazkunak 2006an argitaratu zuten *Urnietako Erretratu Zaharrak* liburuari begiratu ematea besterik ez dago ideia bat hartzeko.

Bestalde, auzotik Urnietara herriara jaitsita ere, Belauntzaran han-hemen ibili zen, beretik zeukana emanez. Besteak beste, Jose Inazio Zugasti apaizaren gidaritzapean euskal kulturgingintzan murgildu ziren Luistarren eta Mariaren Alaben mugimenduko kide izan zen; konparazio batera, Luistarrek aipatu apaizarekin Lurdesera egin zuten txangoko argazkian ageri da Belauntzaran (289 or.). Euskal dantzaria ere izan zen, eta horren erakusle, 1951eko Sanmielelan ateratako argazki saila (130 or.), non herriko gazteak Jorrai-dantza egiten ageri diren San Juan plazan.

Auzolandegietarako ere presatu izan zen boluntarioak eskatu izan zirenean herrian. Horrela jokatu zuen San Migel elizak konponketa behar zuela ikusi zutenean. “1956ko otsailean izugarritzko jelatek sufritu genuen Gipuzkoan, eta Urnietako basoetako pinudiak erreta geratu ziren. Horrek ekarri zuen Urnietako zilegi mendiak saltzea hurrengo urtetan. Diru-iturria ikustearekin batera, eliza konpontzeko erabakia hartu zen, auzolanaren bitartez. Besteak beste, gogor aritu ginen hainbat herritar ohol-zaharreko lurra aldatzen eta harrizko hormak garbitzen”.



Xoxoka-Goiburu aldeko belaunaldi baten erretratua



Irñistorrak 2008ko egutegian argitara eman zuen. Argazkikoan identifikazioan laguntza handia eman zuten Maritxu Minerrek eta Joxe BelauntzaraneK. SEKUNDINO ETXEBERRIA

Juan Bautista Manterola Minerren ezkon aurreko hamaiketakoa Bentan egin zutenekoa, 1959ko abuztuaren 15ean.

1. Lasarte Zugasti, Santiago
2. Belauntzaran Kortadi, Joxe
3. Toledotxiki Zugasti, Jeronimo
4. Garmendi Toledotxiki, Migel
5. Arrieta Bideburu, Nikasio
6. Miner Irastortza, Martin
7. Belauntzaran San Sebastian, Gregorio

8. Goenaga Ansa, Juanito
9. Lasarte Kortadi, Fernando
10. Toledotxiki Garmendia, Joxe
11. Goenaga Ansa, Joxe
12. Elozegi Zugasti, Jose
13. Lizarribar Lizarribar, Joxe Mari
14. Izagirre Igerategi, Joxe
15. Lizaso Itxaso, Juan
16. Manterola Miner, Migel
17. Kortajarena Zatarain, Inazio

18. Lizaso Itxaso, Patxi
19. Lasarte Larrañaga, Jose Luis
20. Unanue San Sebastian, Daniel
21. Belauntzaran San Sebastian, Simon
22. Elizegi Mujika, Alejandro
23. Txapartegi Gorriti, Domingo
24. Lasarte Kortadi, Joxe
25. Txapartegi Gorriti, Pedro Mari
26. Aiestaran Agote, Bautista
27. Belauntzaran Kortadi, Modesto

28. Balda Lizeaga, Gabino
29. Lizaso Itxaso, Bixente
30. Orbegozo Belauntzaran, Joxe
31. Lasarte Kortadi, Roke
32. Elozegi Zugasti, Bartolo
33. Ubillos Olasagirre, Joxe
34. Esnal Izagirre, Juan Kruz
35. Belauntzaran Garaialde, Simon
36. Barkaiztegi Igerategi, Manuel
37. Iradi Miner, Juanito
38. Iradi Miner, Juan Bautista

39. Orkaizagirre Lasarte, Migel
40. Garmendi Arrieta, Joxe
41. Iraola Toledotxiki, Joakin
42. Kortajarena Zatarain, Joxe Antonio
43. Usarralde Arregi, Juantxo
44. Elizegi Mujika, Migel Mari
45. Esnal Pellejero, Laureano
46. San Sebastian Esnaola, Fernando
47. Elizegi Mujika, Bixente
48. Iurramendi Larburu, Joxe Mari
49. Urkola Arruabarrena, Joxe Mari
50. Lasarte Kortadi, Nikolas
51. Ubillos Atxukarro, Alejandro
52. Arrieta Bideburu, Migel
53. Iurramendi Otaño, Agustin
54. Arrieta Bideburu, Pedro
55. Iradi Miner, M^a Karmen
56. Miner Urretabizkaia, Florentina
57. Manterola Miner, Juan Bautista
58. Miner Irastortza, Tomas
59. Miner Irastortza, Maritxu
60. Miner Irastortza, Juan Bautista
61. [Identifikatu gabe]
62. Barkaiztegi Miner, Anjel
63. Miner Urretabizkaia, Joxe
64. Lasarte Kortadi, Bartolo
65. Belauntzaran San Sebastian, Praixku



Durangon jokatu zen jardunaldia, aurreko asteburuan. MASTER LABORAL KUTXA

Ruiz de Infante eta Mendizabal bikotearen garaipen berria

PILOTA Master Laboral Kutxa Emakumezkoen eskuz binakako txapelketa nagusia jokoan da, asteotan

Erredakzioa ANDOAIN

Durangoko Ezkurdi frontoian partida gogorra jokatu zen Ruiz de Infante-Mendizabal eta Sagardui-Gaminde bikoteen artean (22-18). Datorren astean jardunaldi berria Ipar Euskal Herrian jokatu da. Itsasun, hain zuzen.

SAILKAPENA

	Irabazi	Galdut
1 Aldai-Arrillaga	4	2
2 Arrizabalaga-Bergara	3	0
3 R.Infante-Mendizabal	2	1
4 Zabaleta-Bertiz	1	2
5 Ibarrola-Erasun	1	2
6 Sagardui-Gaminde	1	3
7 Etxegarai-Capellan	0	3

Irabazteko partida zaila

ESKUBALOIA Senior gizonezkoen mailan, Urnieta Artola Harategia taldeak ezin izan zuen Ordizia garaitu etxean (22-28). Sailkapenaren aurrealdean dira Tolosa eta Ordizia, eta maila hobea erakusten ari dira liga osoan. Urnietak ahalik eta ondoen bukatu nahi du liga eta, horretarako, Urolaren kantuan irabazten ahaleginduko da asteburuan.



AIURRI

Bigarren garaipena

ESKUBALOIA Urtea hastearekin batera, garaipenak lortzen hasi da Leizaran Lanbroa taldea. Hamabost egun atzera, Allurralden lortu zuten lehena Zuazo garaituz (28-26). Bi jardunaldi eta gero iritsi da bigarrena, oraingoa etxetik kanpo: San Adrian 26-27 Leizaran Lanbroa taberna. Asteburu honetan Elgoibarren jokatu dute, Malape tabernaren aurka.



AIURRI

SASKIBALOIA Garaipen berria eskuratu nahi du junior taldeak

Aurreko asteburuan Ganbara Representaciones Justino taldeak partida galdu zuen Donostian Easo Basket Murumendi taldearen aurka (61-49). Emaizta horren ondorioz, lau jardunaldi igarota, lidertzan da Easo taldea. Nolanahi ere, berdinduta daude bi taldeak sailkapenean, hiru garaipenekin. Datorren larunbatean garaipen berria eskuratu nahi dute andoaindarrek: Allurralden dute partida, Luberriren aurka, eguerdiko 12:30ean hasita.

Partida gehiago jokatuko dira larunbat goizean, Allurralden: **Plastigaur-Hernani** Kadete mutilak. 09:00. **Plastigaur-Ordizia** Kadete neskak. 10:30.

Zurrit taldea

Senior mailako gizonezkoen 3. mailan, Zurrit taldeak larunbat iluntzean jokatu du Carrocerias Renteria taldearen aurka. Allurralden, 20:00tan. Aurreko asteburuan Aloña Mendiren kantuan galdu zuten (77-60).



Imanol Ansa. ORIAMENDI

Juanenea eta Barrenetxea IV zain ditu Ansak

ERREMONTEA Kutxabank Masters kanporaketan Ansak 30-27 irabazi zion Azpirozi. Ligaxka abiatzear da

Erredakzioa HERNANI

Oriamendi enpresa txapelketa-aren jarraipena egiten ari da eta hitzokin jaso du aurreko asteburuko partida: "Hiru aldiz Masterseko txapelduna denak Azpiroz gainditu zuen (30-27). Azpirozek asko borrokatu zuen, urnietarra estu hartuz. Ika-mika entretenigarria izan zen, pilotatua eta fase ezberdinak izan zituen.

Partida oso parekatua hasi zen eta inork ez zuen bestea menderatzen. 6-9koaren ostean, ordea, Urnietako aurrelariak 13-1 eta 17-2ko partziala egin zuen eta markagailuan aurretik jarri zen: 19-10 eta 23-11, hurrenez hurren. Sakearekin betebeteen asmatu zuen partidaren tarte horietan. Azpiroz nekatu egin zen eta gorputzari buelta ematea kostatu egin zitzaion. Hori bai, ez zuen inoiz amore eman.

Lanean jarraitu zuen, eta horri esker pixkanaka desabantaila murrizten hasi zen pilotatua egindako lan onari esker, baita Ansaren opariren bati esker ere. Sakearekin hobeto asmatu zuen eta saketik bost tanto egitea lortu zuen. Partida estu jarri zen, 28-26 eta 29-27, baina pilotatutako azken tantoa Ansaren alde erori zen 30-27ko emaitzarekin partida itxiz". Ansak hortzak estutu behar izan zituen, pilotakada ederrak eman eta garaipena ospatzen bukatu zuen.

Hurrengo partida Juanenearen aurka jokatu du, asteburu honetan.

JUANENEA-ANSA, KUTXABANK MASTERS TXAPELKETAN, ASTEBURU HONETAN



andoa**INDARRA**
euskaraz

Ilusioz beterik ekin diote Oreka taldeko kideek

GIMNASIA ERRITMIKOA Urnietan abiatu berri da Oreka gimnasia erritmikoko kluba. Jubenil eta senior mailako kideak Bergaran izan dira eta bertatik pozez gainezka itzuli dira. Klubeko helduenak ere du dira taldekide txikientzat

Erredakzioa URNIETA
Oreka gimnasia erritmikoko klubeko jubenil eta senior mailako partaideak Bergaran izan ziren aurreko asteburuan. Urteko lehen izan zen eta horregatik bereziki, lan polita egiteko ilusio bereziz abiatu ziren. Oharra igorri dute Orekako kideek: "larunbatean gure amateur gimnastek denboraldiko lehenengo lehiaketa izan zuten Bergaran, lan polita eginez eta ilusio handia erakutsiz". Hona-ko hauek izan ziren lortutako emaitzak:

- Jubenil B maila**
- Banaka: Iraia Mayordomo, 1. sailkatua pilotarekin.
 - Banaka: Maren Egurbide, 5. sailkatua pilotarekin.
 - Taldeka: 3. sailkatua. mazoe-kin.

- Senior B maila**
- Banaka: Iraia Berasarte, 4. sailkatua uztaiarekin.

Orekako helduen ekimenak izango du jarraipena eta bigarren fasea martxoaren 14ko asteburuan jokatu da, Tolosako Usabal kiroldegian. Pozik daude taldeko arduradunak, helduak erreferente baitira gertuko txikientzat: "lan polita egiten ari



Ezkeretik eskuinera: Iraia Mayordomo, Maria Otero, Maren Egurbide eta Leyre Moreno. OREKA

dira klubeko gimnastak, txikientzako ere du baitira". Eta, hain zuzen, taldeko txikiak izango dira hurrengo protagonistak. Urrutira joan gabe, as-
teburu honetan, alebin mailako kideak Donostiako Karmelo Balda kiroldegian ariko baitira. Lehenengo fasean lehiatu dira, asteburu honetan.



Euskalduna, artxiboko irudian. AIURRI

Bolada onari eutsi nahi dio Euskaldunako lehen taldeak

FUTBOLA Orioko eta Mutriku taldeen aurka berdinketa lortu du eta, Beti Gazteren zelaian, garaipena

Erredakzioa ANDOAIN
Azken hiru jardunaldietan ez du partidarik galdu eta bost puntu batu ditu, sailkapenari begira garrantzi berezikoak direnak. Bolada on horri sgida emateko aukera du Andoaingo taldeak, Ubitarte zelaian hartuko baitu Elgoibar taldea. Ez da partida erraza izango sailkapenari begira jarritz gero: Elgoibartarrak zazpigarren dira sailkapenean, 31 punturekin. 9 garaipen lortu dituzte eta, aldiz, Euskaldunak soilik 3. Joaneakoan, esaterako, Elgoibar 3-1 nagusitu zen.

Bigarren itzulian hobeto
Denboraldiko partzial onena kateatu du Gaztañagaren taldeak, 9 puntutik 5 eskuratuz. Baina gertuko aurkariak ere puntuak pilotzen ari dira. Behekaldean, beraz, gauzak estutzen ari dira.

SAILKAPENA		P
1	Real Union B	42
7	Elgoibar	31
14	Urola	20
15	Mutriku	17
16	Hernani	16
17	Deusto	16
18	Euskalduna	15

FUTBOLA Berdinketa, igoera faseko lehen jardunaldian

Gorengo erregional mailan, emakumezkoetan, Euskaldunak

puntu bat lortu zuen Amaiak Baten zelaian (2-2). Asteburu honetan Euskaldunak Hondarribia taldea hartuko du Ubitarten. Kostakoek hiru puntu lortu zituzten aurreko asteburuan.

OTSAILAK 7

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA

JAI ALAI

kutxabank

MASTERS

TXAPELKETA 2025

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

AIESTARAN VII · ESKUDERO VS. DESKARGA · AIESTARAN VI

2. PARTIDA (KUTXABANK MASTERS TXAPELKETA)

JUANENEA VS ANSA II

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)

JABALERA · BARRENETXEA IV VS. EZKURRA II · LARRAÑAGA

Malen Agirreren margolanak, Basteron

Tokiko artistak —abeslariak, aktoreak eta diziplina desberdinetako sortzaileak— sustatu eta haien lana ezagutarazteko sortutako ekimena da Katapulta Plataforma. Bastero Kulturguneko erakusketa berrian haietako baten artea ezagutzeko aukera izango da

Erredakzioa ANDOAIN

“Figuras sin dibujar” izeneko erakusketa Bastero Kulturgunean egongo da ikusgai, otsailaren 5ean hasita. Malen Agirreren artelanak ikusteko aukera izango da. Irekiera-ekitaldia arratsaldeko 18:30ean izango da eta artista bera bertan izango da. Erakusketa, Katapultaren oharrean jasotakoaren arabera, “artistaren unibertso piktorikoan murgiltzeko aukera da. Bertan, etengabeko mugimenduan dagoen paisaia emozional bat aurkezten da, zeinean koloreak, keinuak eta giza figurak sentikortasunetik eta barne-begiradatik elkarri-

ketan aritzen diren”. Datorren martxoaren 7ra bitarte zabalik izango da erakusketa, ohiko ordutegian.

Malen Agirre artistaren ibilbidea

Malen Agirre 1988an jaioa da eta sormen giroan hazi zen, artea eta irakaskuntza eguneroaren parte ziren familia-ingurune batean: “giro horrek pinturarekiko maitasuna piztu zion txikitatik, bere adierazpide nagusi bilakatuz. Artean lizentziatua da eta Estanpazio Digitalean graduondokoa egin zuen. Bere lana etengabeko eraldaketan dagoen paisaia emozional gisa definitzen da:

elkarri aurre egiten dioten eta besarkatzen diren koloreak, samurtasuna zein indar bortitza iradokitzen duten trazuekin. Bere koadroetan presentzia iragankorren ikuspegi desberdinak agertzen dira: erabat marraztu gabeko giza figurak, aurpegi adierazkorrak eta desagertu eta berriro agertzen diren giza-gorputzak. Naturarekiko sentikortasun handia eta giza figuraren trataera introspektiboa nabarmentzen dira bere lanetan, betiere estetika lasai eta dotore batez lagunduta”. Hitz horiekin osatu dute antolatzaileek artistaren aurkezpen-txartela.



Malen Agirre. MAR SANDE

Albistegia, astelehenetik ostiralera

Telegram

Whatsapp

Aiurri Andoain

Aiurri Urnieta

Batu zaitez!



Tailerra larunbatarekin egingo dute, otsailean eta martxoan. UDALA

Sukaldaritzan trebatzeko ikastaroa, Urnietan

“Bakarrik sukaldean” heldu nahiz gazteei bideratutako sukaldaritza ikastaroa da

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak “Bakarrik sukaldean” tailerra antolatu du. Saio bakoitzean bi plater pres-tatuko dira, besteak beste, arrai-na saltsan, lapikoko platerak, haragi-bolak eta postreak izan-go dira horietako batzuk.

Lantegiak larunbatarekin egin-go dira, 11:00-13:00 bitartean, honako data hauetan: otsailean 21 eta 28an, eta martxoan 7 eta 14an. Parte hartzeko, Bertan arreta zerbitzuan eta Lekaion eman behar da izena. Epea otsai-laren 9an amaituko da.

Odola emateko hitzordua, Andoainen, datorren astelehenean

Odol-emateko saio berria anto-latu dute Andoainen, datorren otsailaren 9an. Odola eman nahi dutenek hurrengo telefono zen-bakira deitu beharko dute hitzordua zehazteko: 943 00 78 84. Internet bidez ere egin daiteke gotatanta.eus webgunearen bi-tartez. Osasun etxean arratsal-deko 16:30etik aurrera izango dira, iluntzeko 20:15ak arte.

LEHIAKETAK

ANTIA

URNIETA

Haur eta gazte mailakoa da. Literatur lehiaketaren oinarriak Urnieta.eus webgunean. Epea: Martxoak 20.

M8: KARTEL LEHIAKETA

ANDOAIN

Martxoaren 8ko hitzordu-sorta iragartzeko lehiaketa antolatu du Andoaingo Udalak. Oinarriak Andoain.eus webgunean. Lanak Bastero Kulturgunean aurkeztu behar dira, egun eta ordu jakinean. Epea: Otsailak 10.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

ZORIONAK Uxue, Unai eta Jon!

Unai eta Jonen urtarilaren 18an 8 urte bete zituzten eta Uxuek otsailaren 4ean, 11 urte. Segi ezazue orain bezain jator eta alai! Aupa zuek! Askok maite zaituztegu. Etxekoak.



MERKATU TXIKIA

BORDA/TXABOLA

ANDOAIN

Andoain edo inguruan, borda edo txabola bat hartuko nuke animalia txikiak edo/eta baratze txiki bat jartzeko. Hitz egiteko prest. Kontaktua: ddok81617@gmail.com

SALGAI

LARRAUL

Ohe artikulatua, gurpildun aulkia eta dutxarako aulkia. 610 953 258.

Parte hartzeko

diseinua@aiurri.eus
619 163 537 943 300 732
Arantzibia 4-5, behe. Andoain

ANDOAIN

ZORIONAK Irune, Imanol, Aitor, Maialen, Iker eta Ruben!

Sorioneku gu zuek beti ondoan izateagatik. Urtebetzeak maitasunez beteta etor daitezela. Biba zuek! Familia



ANDOAIN

Gorka eta Irune

Egun ederra pasa dezazuela! Jarraitu orain artean bezalaxe, jator-jator! Maite zaituztegu! Etxekoak!

KANTARI

Gaztetxoak izarren pare ikusiko ditugu

Otsailean,
Andoainen

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Malen Agirre
"Marraztu gabeko irudiak".
18:30, irekiera-ekitaldia Basteron.
Otsailak 5, osteguna.

TAILERRA

URNIETA, ANDOAIN Rap musika
Beat Eroak Beterri-Buruntzan garatu nahi duten rap tailerra da 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Urnietan izango da lehen saioa, eta bigarrena, Andoainen datorren otsailaren 19an.
Otsailak 9, astelehena,
17:00, Gaztelekua.

INAUTERIAK

URNIETA, ANDOAIN Atarikoak
6-7. orrialdeak.



Eduardo Arreseygor eta Joxema Langara dira dokumentalaren egileak. AIURRI

ANDOAIN Qualia dokumentalaren emankizuna eta solasaldia

Ikusmen-urritasuna duten emakumeek eta gizonek egiten duten antzerkigintza dihardu lanak. Kultur jarduera horren ezaugarriez gain, beren itxaropenak, zailtasunak, emozioak jasotzen dituen lanak. Proiekzioaren ondoren, solasaldia egingo da Arreseygor eta Langara egileekin eta hiru protagonistekin; Goyo Santalla, Pakita Zunzunegi eta Inmaculada Ferrero.
19:30, Bastero Kulturgunea. Otsailak 6, ostirala.



ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Hamnet
Larunbata, 7. 19:30.
Igandea, 8. 19:30.
Astele, 9. 17:00, 19:30.

Abuela tremenda
Igandea, 8. 17:00.
Flores para Antonio
Larunbata, 14. 19:30.
Igandea, 15. 19:30.
Astele, 16. 17:00, 19:30.



SINOPSISIA

Hamnet
Zuzendaria: Chloe Zhao. **Aktoreak:** Jessie Buckley, Paul Mescal, Jacobi Jupe, Joe Alwyn, Emily Watson, David Wilmot, Jack Shallo, Faith Delaney, Sam Woolf... **Generoa:** Drama. **Herrialdea:** Britainia Handia. **Iraupena:** 125 minutu.

Hamnet semearen galeratik sortu zen Hamlet, Shakespearen eleberria

Agnesen bizitza lasai igarotzen da senarrarekin eta hiru seme-alabekin batera. Sendabelarrak landatzen ditu Agnesek, senarrak Londresen lan egiten duen bitartean. Patuak, hala ere, kolpe latza emango die. Hamaika urteko seme Hamnet bat-batean hiltzen da izurritearen eraginez. Filmak William Shakespearearen emazte Agnesen bizipenak kontatzen ditu, Hamnet semearen galera gainditzeko borrokan. Historia gizatiar eta urratzailea, Shakespearek Hamlet lana sortzeko baliatu zuena. Maggie O'Farrellen best sellerean oinarrituta, Chloe Zhao-k zuzendu du filma.



UXUE AUZMENDI AGIRREBENGOA

Donostia | 21 urte
Gradua: Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa
4. maila

www.mondragon.edu/prest



"Mondragon Unibertsitatea hautatu nuen Euskal Herrian Ingeniaritza Fisikoa eskaintzen duen unibertsitate bakarra delako"

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobbie edo zaletasunik?

Unibertsitate aurreko ikasketak Axular Lizeoan egin nituen. Orain, Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoko gradua ikasten ari naiz. Nire zaletasunak saskibaloia, bidaia eta argazkilaritza dira.

Zergatik aukeratu zenuen Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Gradua aukeratzeko arrazoia nahiko sinplea izan zen: ez nekien ingeniaritza, matematika edo fisikaren artean zein hautatu, eta aukera honek guztiak uztartzen zituen. Mondragon Unibertsitatea hautatu nuen Euskal Herrian Ingeniaritza Fisikoa eskaintzen duen unibertsitate bakarra delako, eta gainera betidanik erakarri izan navelako duen ikuspegi praktikoa.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizi-tako esperientzia?

Orokorrean, esperientzia oso positiboa izan da. Lehen promozioa izanik nolabait esperimentu baten parte izan gara, baina balantzea positiboa da. Bidean asko ikasi dut, bai akademikoki bai pertsonalki.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Mundu errealetik oso gertu dagoen metodologia dela esango nuke, non eguneroko lana eta talde-lana funtsezkoak diren. Metodologia honen oinarrian PBL proiektuak daude, gure ikasketetako arlo ezberdinak nola elkar gurutzatzen diren ulertzeko oso baliagarriak direnak.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Metodologiak gain, gehien gustatu zaidana klaseko giroa izan da, bai ikasleekin artean, bai irakasleekin. Graduako edukari dagokionez, asko baloratzen dut zientzia eta ingeniaritzaren arlo oso ezberdinak

ezagutzeko aukera izatea. Hobetzekotan, ikasgai batzuen antolaketa edo zenbait prozesuren kudeaketa aldatuko nitzuke.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?

laz unibertsitatean bertan ari nintzen lanean, eta aurtun Oslora etorri naiz Erasmus Traineeship programaren bidez Gradu Bukaerako Lana egitera. Hemen, Simula Research Laboratory izeneko ikerketa-zentro batean nabil, adimen artifizial kuantikoaren aplikazio errealek ikertzen. Eredu dualari esker lan-mundua lehen eskutik ezagutzeko aukera izan dut.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Oraindik zaila da batzuk badituz, baina argi daukat hurrengo pausua master bat egitea izango dela, nahiz eta oraindik zein eta non erabaki gabe egon. Aurreago, agian ikerketa-munduari aukera bat emango nioke, baina presarik gabe.